

«L.S.B., ANA» LESBIKOMIKIA

Belaunaldi berrientzat erreferente izan nahi duen komiki lesbikoa

Irakaslea sexuari buruzko klasea ematen ari da, eta Anaren gelakideak, gaztetxoak oraindik, barrez ari dira «gizonak emakumearengan bere hazitxoak» jartzen duela entzutean. Anarentzat antzua da, ordea, irakasleak ahoan darabilen hizketa. Berak gauza bakarra du buruan: Palomaren ondoan eserita dago eskolan.

Horrela hasten da Anaren istorioa; gustatzen zaion neskekin idazmahaia konpartitzeak eragiten dion ezinegona, “normala” izan nahiaren borrokatik lesbianismoa zer den ezagutzera.

Ana Lopez Suarez Burgos Coma “L.S.B., Ana” lesbikomikiko protagonista da eta superboteak ditu. Ez Marvel komikietako protagonisten superindarra, elastikotasuna edo marasmetatik zintzilikatuta hegan egiteko gaitasuna. Anaren superboterea lesbiana izatea da, horrek nahitaez ahalduntzera bultzatu baitu. Zirkuko pantera arrosa sentitzen da eskolan, bere espeziean bakarra, baina umorea du askatasun orro. Komiki-binetatan barna aritzen da saltoka, egunerokoari aurre eginez, batzuetan zabar eta inozente, baina betiere indartsu.

Ana komikira eraman duen hori Teresa Castro Gutierrez da, lesbiana donostiarra, adats motz eta betaurrekodun komikigilea. 2013an aurkeztu zion “L.S.B. Ana” Oscar Arroyuelo Gehitu Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkartearen aldizkari arduradunari, eta ordutik “Gehitu Magazine”-n argitaratu ditu Anaren istorioak. «Aldizkariaren arduradunari erakutsi nion lehenengo tira bihotzetik atera zitzaidan isto-

 **JENDARTEA** / Maddi Txintxurreta Agirregabiria

Teresa Castro Gutierrezek «L.S.B., Ana» lesbikomikia idatzi du, Ana protagonista lesbianaren bizitzari buruzko komiki-tira bilduma. Eguneroko errealitatea lesbiana izatearen baldintzapean bizi du Anak, eta horrek dakartzan zailtasun eta mugei umorez erantzuten die. Ahalduntze prozesu bat jasotzen du argitalpenak, arauz kanpoko sexualitatea, aniztasuna eta feminismoa ardatz. Asmo didaktikoa dauka liburuak, eta gazteentzat baliagarria izatea du desioa du autoreak.

Lerroon azpian, Teresa Castro, komikiaren egilea, Gehituk Donostian duen egoitzan.

Juan Carlos RUIZ | FOKU



rio bat izan zen, nire istorioa: lesbiana nintzela deskubritu nuenekoa», azaldu du Castrok. Ordutik, hamahiru istorio argitaratu ditu “Gehitu Magazine”-n, eta guztien bilduma-liburua kaleratu du berriki.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Meta kanpainaren baitan argitaratu du Teresa Castrok liburua, eduki soziala izatea lehenesten duen kultura proiektuei zuzendutako kanpaina. *Mathc funding* bat antolatu zuten dirua eta itzulpenak lortzeko, eta aise lortu zuten Meta kanpainak eskatzen zuen aurrekontu optimoa: 9.500 euro. Dirua liburuaren edizio-rako erabili da, gainontzeko lana boluntarioa izan baita. Euskaraz eta gazteleraz kaleratu dute bilduma, baina italierara, katalanera eta galegora itzultzeko asmoa dauka egileak. Bestalde, Mugen Gainetik gobernu kanpoko erakundearen laguntzaz, lesbikomikia Latinoamerikako hainbat herrialdeetako LGBTI erakundeetara zabaltzeko asmoa ere badute.

Komiki-liburua Gehituk antolatzen dituen aniztasun sexu-afektibo eta genero tailerretan erabiliko dute, eta belaunaldi gazteenen eskuetara irits dadin nahi du Castrok. Orobat, aleak doan banatzen ari dira, eta Gehituko bulegoetatik pasatzen den edonork har dezake. Anaren istorioak irakurtzeko adin aproposena 11-12 urte direla dio egileak, baina helduek ere gozatuko dutela ziurtatu du.

«KAXOI BATEAN GORDETA»

Komikigintzan «amateurra» dela dio Castrok. Ez du ogibide, baina «betidanik» jardun du komikiak egiten. «Komikiarekiko dudak maitasunaren eta aktibismoaren arteko nahasketa da ‘L.S.B. Ana’», azaldu

**Anaren istorioak irakurtzeko adin aproposena
11-12 urte direla dio egileak, baina helduek ere
gozatuko dutela ziurtatu du. Ahaldundutako
eta umore biziko lesbiana nerabea da Ana**

**Castrok «horrelako istorioak irakurtzeko
beharra» zuelako sortu zuen Ana. Izan ere,
sortzaileak dio ez dagoela komikigintza
lesbikoaren gertuko erreferenterik**

du. Hala ere, Castrok dio «zaila» dela komikiak egitea «beraiekin zer egin ez dakizunean», eta “Gehitu Magazine”-k Ana bere orrien artean agertzeko oniritzia ematea egilearentzat «aurrera egiteko» motibazioa izan zen. «2013an hasi nintzen Gehiturentzat komikiak egiten, baina Ana 2000. urtetik zegoen kaxoi batean gordeta», esan du.

“Gehitu Magazine” monografikoa izanagatik, askotariko gaiak jorratzen ditu Teresa Castroren komiki bildumak: hiesa, sexu segurua, lehenengo harreman sexu-afektiboa, transexualitatea eta *bullying*-a, kasurako. «Gai konkretu batzuk lantzean konplikatu izan da nire errealtateko istorioak islatzea. Nire esperientzietan oinarritutako istorioak daude, baina baita gertukoek bizitako egoerak ere», azaldu du Castrok.

Teresa Castroren esperientzien eramailea da Ana. Ezin jakin noiz bukatzen den bata eta non hasten den bestea. Biak umoretsu, betaurrekoak eta koadrodun alkandora jantzita, ile-motz eta bihotz bero. Hala ere, Castrok dio Ana «bera baino gehiago» dela: «Teresagandik gero eta urrunago dago, gero eta lotsagabeagoa bihurtzen ari da. Gauzak beti umorez hartzen dituen nire parte da Ana. Ni ez naiz pertsona serioa, baina berak dena ikusten du ironia eta umore puntu batekin».

Anak abantailarekin jokatzeko du lesbianismoaren barne borrokan. Teresa Castroren esperientzietatik ikasi du, eta dena perspektiba zabalago batekin behatzeko gai da. «Ia-ia lehenengo istoriotik ahalduntzen da, bere desberdintasunaz kontzientzia hartzen du, gaizki pasatzen duen arren.

Dena umorez hartzeko lesbiana ahaldundu bat izan behar du derrigor», azaldu du sortzaileak.

IKUSEZINTASUN LESBIKOA

Castrok «horrelako istorioak irakurtzeko beharra» zuelako sortu zuen Ana. Izan ere, sortzaileak dio ez dagoela komikigintza lesbikoaren gertuko erreferenterik, oraindik ere «pelikuletako gaizto gisa» agertzen direla, agertzen direnean. Egiatzko lesbiana ikuse-

zin segitzen dutela iritzi du, salbuespenak salbuespen: «Bineska kataluniarrek saiakera egin zuten ‘Salidas de emergencia’ izeneko komiki lesbikoarekin, baina gutxi iraun zuen».

Lesbiana plastiko, idiliko eta irrealak hartu dituzte pantaila handi eta txikiak, baita komikietako binetak ere. “The L Word” telesaila aipatu du Castrok, 2004tik 2009ra eman zen, eta erreferente lesbikoak agertzen zituen telesail baka-

netakoa izan zen garai hartan. Areago, protagonista guztiak lesbianak ziren. Alabaina, Castrok salatu du emakume homosexualak telebistan agertzea beharrezkoa bada ere, «gizonen gustura zizelkatutako lesbianak» izaten direla sarri: «Oso zaila da emakume maskulino bat agertzea, gizonen sentitzen dutelako lekua lapurtzen ari zaizkiela».

Lupaz bilatu behar izan ditu Castrok komiki lesbofeministen erreferenteak. “Le bleu est un coloeur chaude” komiki frantsesa aipatu du, Julie Maroh egilearena, “La Vie d’Adèle” pelikularekin zinemara eramana zena. Berebat, komiki lesbikoaren erreferente behinena Alison Bechdel estatubatuarra dela dio Castrok. “Dykes



Belaunaldi gazteek erreferente lesbiko errealeak falta dituztela uste du Teresa Castrok. GAUR8



to watch out for” komikiarekin Ameriketako Estatu Batuetako 80ko hamarkadako lesbien erreferente kulturala bilakatu zen. Hala ere, adibideok arrotzak dira euskal lesbientzat, testuinguru historiko eta soziala ez baita bera han eta hemen. «Alison Bechdelen komikiaren kasuan, interesgarria da oso Ameriketako Estatu Batuetako tira historiko gisa, baina urrunegia da guretzat. Herrialdeko historia politikoa nahasten du, eta inbidiaz irakurtzen duzu ikustean zeinen aurreratuta dauden bertan, baina hemen ez da horrela», azaldu du. Bestalde, nabarmendu du «errazagoa» dela gizon homosexualen inguruko erreferentziak aurkitzea.

Teresa Castrok hezur-haragizko erreferente lesbiana plazaratu nahi du Euskal Herrian. “L.S.B., Ana”-k ez du bere burua ikusten “The L Word” telesailaren baitan, non okina ere lesbiana baiten. Lesbiana iza-

ra onartzea borrokaren hasiera besterik ez da berarentzat, harreman berriak eraikitzen ikasi behar du, eta onartu ez dela existitzen telesailtako mundu idealik.

Ana emakume maskulinoa da, eta, zentzu horretan, lesbienaren estereotipoa betetzen du. «Nik ere koadrodun alkandora janzen dut – dio Castrok barrez –. Hala ere, estereotipoekin apurtzen saiatzen naiz, zeren, kontsumoaren kulturen, pelikuletan-eta, lesbiana politak eta femeninok agertzen dira soilik. Anari *bullying*-a egiten diote bere itxuragatik, eta ezin dugu ahaztu bakoitzak nahi duen moduan janzteko eta jokatzeko eskubidea duela».

Castroren helburua da komikia irakurtzen dutenek jakitea «ez daudela bakarrik», eta identifikatu daitezkeen istorioak aurkitzea liburuan. Gazte lesbianak errazago identifikatuko dira Anarekin, baina

Teresa Castro Gutierrez egilea, komikiaren ale bat eskuan hartuta. Gustura dago aspalditik gordetako istorioek argia ikusi dutelako eta gaztetxo askorentzat lagungarri izango direla uste duelako.
Juan Carlos RUIZ | FOKU

Teresa Castro Gutierrez egilearen helburua da komikia irakurtzen dutenek jakitea «ez daudela bakarrik», eta identifikatu daitezkeen istorioak aurkitzea liburuan

Oraindik konnotazio negatiboa du «lesbiana» hitzak. «Badirudi itsusi, lodi eta desiraezinak garela». Uste horiek hezkuntza katolikoak eta heteropatriarkalak ezarriak direla dio Castrok

komikiak genero aniztasunaren eta aniztasun sexu-afektiboaren gaineko sentsibilitatea duen edonorengan eragiteko gaitasuna izango duela uste du Castrok. «Zoriontsuak izan gaitzke, gogoak ematen digun lekuan egin dezakegu lan, ez dugu arazorik lesbiana iza-teagatik», azaldu du.

LESBIANAREN ALDARRIA

Zergatik zabaldu lau haizetara lesbiana zarela? Zergatik aldarrikatu homosexualitatea, izaeraren ezaugarri bat besterik ez bada? «Nik, orain urte batzuk, pentsatzen nuen: zergatik esan behar dut lesbiana naizela?», esan du komikigileak: «Baina kontzientzia hartzen duzu, emakume izaerak heteropatriarkatuaz jabetzea eragiten duen bezala. Lesbianak garela aldarrikatu behar dugu. Oso garrantzitsua deritzot belaunaldi berriek erreferente positiboak izatea; lanean, familian, zineman edo komikietan. Erreferente horiek ez lirateke existituko ikusgarri egingo ez bagina. Erakusten ez diren gauzak ez dira existitzen. Lesbianok pentsatzen badugu gure sexualitatea pertsonala dela politikoa beharrean, jai daukagu».

Gizartera lesbiana bezala aurkeztea ez da beti erraza, baina Castroren ustez, sarritan are konplikatuagoa da «gure buruari ezartzen dizkiogun mugekin apurtzea». «Guk muntatzen ditugun armairu txiki horiek dira okerrenak». Bere esanetan, «barneratutako

lesbofobia» da emakume homosexualen beldurretako bat. Oraindik ere “lesbiana” hitzak konnotazio negatiboa duela dago Castro, «badirudi itsusiak, lodiak eta desiraezinak garela», eta uste horiek guztiak «hezkuntza katolikoak eta heteropatriarkalak» xirngatu dizkigutela dio.

Teresa Castro ohituta dago espazio erosoetan ibiltzen, errespetatzen duten lagunekin. Baina zirkulu erosotik hanka bat ateratzean, erasoak gertatzen direla aipatu du. Gizarte «hipokrita» batean bizi garela iritzi du berak, diskurtso «politikoki zuzena» erabili arren, jendea makur eta adi egoten dela noiz saltatuko zain.

Castrok bere azalean bizi izan du lesbofobia “L.S.B., Ana” liburuaren kanpainan. Sare sozialetan iraindu zuten, hiru arrazoiengatik: «emakume iza-teagatik, lesbiana iza-teagatik eta gaizki marrazteagatik. Baina gaizki marraztearena beste bien aitzakia da».

Heriotzarekin amesten du Anak liburuko komiki-tira batean. San Pedrok atea ireki dio, eta Jainkoa agertu zaio bat-batean, zerura ongi etorria emanetz. Koadrodun alkandora, betaurreko arrosak eta adats motza du Jainkoak, Anak hala berdin-berdin. «Zerk harritzen zaitu? Ez al zaitut nire irudi eta parekotasunera egin?», galdetu dio Jainkoak. Pentsakor geratu da Ana, jainkotiar ispiluari begira. Orduan... Jainkoa lesbiana da?

GAUR8

